

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MEZULARITZA ELEKTRONIKOKO ZERBITZUEN ADMINISTRAZIOA ETA AUDITORETZA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF1274		
Lanbide-arloa	INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
Lanbide-eremua	Sistemak eta telematika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Interneteko zerbitzuen administrazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Mezularitza elektronikoko zerbitzuen administrazioa	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Mezularitza elektronikoko zerbitzariaren softwarearen hautaketa, instalazioa eta konfigurazioa	Iraupena	60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0496_3 MEZULARITZA ELEKTRONIKOKO ZERBITZUAK INSTALATZEA, KONFIGURATZEA ETA ADMINISTRATZEA gaitasun-ataleko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Mezularitza elektronikoko zerbitzariak administratzea, zerbitzuko jarraitutasuna bermatzeko, betiere segurtasun-zehaztapenei jarraiki.
- EI1.1 Mezularitza elektronikoko zerbitzuaren erabiltzaileen kontuak kudeatzeko prozedurak definitzea.
 - EI1.2 Mezularitza elektronikoko zerbitzarirako biltegiatze-baliabideak eta postontzien kudeaketarako baliabideak administratzeko teknikak azaltzea.
 - EI1.3 Mezularitza elektronikoko zerbitzariak bestelako zerbitzari eta aplikazioekin izan dezaketen komunikazioa deskribatzea.
 - EI1.4 Zerbitzuaren eta erabiltzaileen babes informatikorako teknikak azaltzea, segurtasun informatikoko arauetako zehaztapenei jarraiki.
 - EI1.5 Zerbitzarien errendimendua optimizatzeko neurriak deskribatzea.
 - BI1.6 Kasu praktiko batean, mezularitza elektronikoko zerbitzu bat ekoizten ari gara; honako lan hauek egin behar dira:
 - Erabiltzaileen kontuen kudeaketarako politika definitzea.
 - Zerbitzuaren baldintzetara eta eragiketa-baldintzetara hein handiagoan egokituta dauden segurtasun-erremintak txertatzea.
 - Zerbitzariaren errendimendu-parametroak aztertzea.
 - Zerbitzaria erabilera-aldaketetara eta kontingentzia-planetara egokitzeko jardun-planak ezartzea.
 - EI1.7 Mezularitza elektronikoko zerbitzariak maneiatutako informazioan eragina duen indarreko lege-araudia azaltzea.
- A2: Mezularitza elektronikoko zerbitzuaren auditoretza-prozedurak eta gorabeherak konpontzeko prozedurak aplikatzea.
- EI2.1 Mezularitza elektronikoko zerbitzari baten errendimenduan erabakigarriak diren elementuak deskribatzea eta sailkatzea.
 - EI2.2 Zerbitzuari dagokionez emandako kalitatea zenbatzeko eta neurtzeko prozedurak azaltzea.
 - EI2.3 Mezularitza elektronikoko zerbitzuen ekoizpen-inguruneetako gorabeherak diagnostikatzeko prozedurak azaltzea.
 - EI2.4 Mezularitza elektronikoko zerbitzuen ekoizpen-inguruneetako gorabeherak konpontzeko teknikak xehetasunez deskribatzea.
 - EI2.5 Kasu praktiko batean, mezularitza elektronikoko zerbitzu bat ekoizten ari gara; honako lan hauek egin behar dira:
 - Prozedura-eskuliburuaren definitutako eragiketak aldiari behin eta behar bezala gauzatzen direla ziurtatzea.
 - Zerbitzuaren errendimendua eta eskuragarritasuna neurtzeko mekanismoak ezartzea.
 - Zerbitzuaren kalitate-parametroak aztertzea, zehaztapenen betetze-maila zehazteko.
 - Aurkitutako urritasunak zuzentzeko neurriak aplikatzea.
 - EI2.6 Kasu praktiko batean, ekoizten ari garen mezularitza elektronikoko zerbitzu bat gorabehera-egoeran dago; honako lan hauek egin behar dira:
 - Funtzionamendu txarraren kausa identifikatzea ahalbidetzen duten diagnostiko-teknikak eta -erremintak aplikatzea.
 - Ahalik eta zerbitzu-mailarik handienari eusteko eta gerta litezkeen kalteak murrizteko presako euste-neurriak aplikatzea.
 - Arazoa behin betiko konpontzeko eta gorabeheraren aurreko egoerara itzultzeko prozedurak ezartzea.
 - Gorabeheraren kausa aztertzea eta antzeko beste egoeraren bat prebenitzeko edo denbora-tarte laburragoan konpontzeko prozedurak ezartzea.

Edukiak

1. Posta-sistemaren administrazioa.

- o Sistemaren administrazioa:
 - Erabiltzaile-kontuen kudeaketa.
 - Biltegiatze-baliabideen administrazioa.
 - Postontzien kudeaketa.

- Sistemaren errendimenduaren optimizazioa:
 - Errendimenduan erabakigarriak diren elementuak: Hardwarea. Sistema eragilea. Aplikazioak.
 - Sistema Eragilearen errendimenduko doikuntzak.
 - Aplikazioen errendimenduko doikuntzak: SMTP zerbitzaria. POP/IMAP zerbitzaria. Web-zerbitzariak, antibirus-/antispam-iragazkiak.
 - Posta-sistema baten eskalatzea. Zerbitzuen banaketa. Karga-kulunka, eskuragarritasun altua.
- Sistemaren monitorizazioa:
 - Monitorizazio-sistema baten konfigurazioa.
 - Sistemaren errendimendu-parametrorik garrantzitsuenen monitorizazioa.
- Sistemaren sekurizazioa:
 - Lege Araudirako (Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei buruzko Legea eta Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa) eta erakundearen segurtasun-politiketarako egokitzapena.
 - Jardunbide egokien kodeak (ISO 27002)
 - Hondamendien kasuan berreskuratzea eta zerbitzuekin jarraitzea.
 - Segurtasun-Kopiak.
 - Eguneratzeen kudeaketa.
 - Zerbitzuen babesak: Firewalla. Segurtasun-erremintak (Nmap, Nessus/OpenVAS, Brutus).

2. Mezularitza elektronikoko zerbitzuen gaineko gorabeheren auditoretza eta konponketa.

- Auditoretza:
 - Proben plana.
 - Zerbitzuaren eskuragarritasuna.
 - Zerbitzua emateari buruzko akordioak (SLAk).
 - Posta-sistemen eskuragarritasun altua.
- Gorabeherak konpontzeko teknikak:
 - Euste-neurriak. Workaround-ak.
 - Kausa/jatorriaren azterketa.
 - Arazoen kudeaketa proaktiboa.
- Gorabeherak konpontzeko erreminten azterketa eta erabilera:
 - Monitorizazioa.
 - Logak.
 - Sistema Eragilearen Tresnak.
 - Aplikazioen tresna edo erremintak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1273 Mezularitza elektronikoko zerbitzariaren softwarearen hautaketa, instalazioa eta konfigurazioa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Interneteko zerbitzuen administrazioa